

223. zenbakia

Azpeitian zer?

Udal aldizkaria

Alde Zaharra
erdigunean



Telefono interesgarriak

Zentralita	943 15 72 00
Hirigintza	943 15 71 91
Gizarte Zerbitzuak	943 15 71 92
Kultura	943 15 70 68
Kirolak	943 15 00 95
Hezkuntza	943 25 50 06
Parekidetasuna	943 15 79 28
Emakumeen Txokoa	943 15 70 55
Iturritxiki Ludoteka	943 15 11 79
Txiki-Txoko Ludoteka	943 15 05 16
Gazte Informazio Bulegoa (GIB)	943 15 71 60
Gaztelekua	943 15 71 61
Eguneko Zentroa	943 15 74 96
Liburutegia	943 15 71 95
Udaltzainak	943 15 13 13
Igerilekua	943 81 41 21
Kiroldegia	943 81 30 69
Udal Euskaltegia	943 81 19 47
Etxebizitza bulegoa	943 15 71 83
Energia bulegoa	943 11 98 06



Ale honetan zer?

Jendea biziko den Alde Zaharra	3
Etxebizitza	4
Alde Zaharrerako neurriak	5
Trasteleku komunitarioak	6
Ekarpenak egiteko aukera	7
Topaleku berri bat auzoan	8
Duela gutxi amaitutakoak	10

Azpeititik kanpo bizi arren, zure etxean jaso dezakezu **Azpeitian Zer?** aldizkari hau posta bidez. Egin eskaria **943 15 71 85** (Alkatetza) telefonoan.

Argitaratzailea: Azpeitiko Udala · Egilea: Prentsa bulegoa
Argazkiak: Azpeitiko Udala. · Diseinua: Sorland
Maketazioa: Sorland
Ale kopurua: 7.000 · L.G: SS - 1148/91

Herritarren Arreta Zerbitzua



Azpeitiko Udaleko lehen solairuan dago Herritarren Arreta Zerbitzua. Dokumentuen erregistroa, errolda agiria atera, eskaera orokorrak zein lizentzia eskaerak edo kontsultak egiten dira bertan. Neguko ordutegian, astelehenetik ostiralera, 07:30etik 14:30era izaten da zabalik; ostegunetan salbu. Egun horretan, 07:30etik 19:00etara, etenik gabe, eskaintzen zaie zerbitzua herritarrei.




Jendea biziko den Alde Zaharra

Azpeitiko Udalak hainbat proiektu ditu esku artean, jendea Alde Zaharrera erakartzeko, dagoeneko auzoan bizi direnak ahalik eta erosoen bizitzeko eta kalean mugimendua sortzeko.

Alde Zaharrak "bizitza" izatea nahi du Azpeitiko Udalak, eta argi du horretarako bidea zein den: jendea bertan bizitzea. Horregatik, hainbat proiektu ditu esku artean, jendea auzora erakartzeko, dagoeneko Alde Zaharrean bizi direnak ahalik eta erosoen bizitzeko eta kalean mugimendua sortzeko.

Jendea auzoan bizi ahal izateko, etxebizitzak dira funtsezko pieza. Babestuko etxeetan inbertitzen jarraituko du udalak; gaur egungo etxeak egokitzeko neurriak sustatuko ditu; eta dirulaguntzetan ere ahalegin berezia egiten jarraituko du auzoan.

Proiektu berritzaileak ere baditu esku artean, hala nola Frontoi Txiki ondoko eremuari buruzko parte hartze prozesua eta trasteleku komunitarioen proiektua.



Etxebizitzak, funtsezko pieza

BABESTUTAKO HAMABI ETXE

Alde Zaharrak bizitzeko leku erakargarria izaten jarrai dezan, hainbat proiektu ditu martxan Azpeitiko Udalak. Horien artean, garrantzi berezia dute etxebizitzari lotutakoak. Alde batetik, babestutako etxe berriak sustatzen ari da udala; bestetik, gaur egungo etxeak ahalik eta erosoena izateko neurriak jarri ditu abian.

Etxe berriei dagokienez, Erdikalean 13 eta 15 zenbakidun blokeak erosi ditu (duela gutxi arte Jostaldi denda eta Amaia taberna zeudenak). Hurrengo urratsa eraikin horiek botatzea izango da, babestutako etxe berriak egiteko. Hiru logelako hamabi etxe eraikiko dira, eta salmentara bideratuko dira.

Aurreikuspenen arabera, abenduaren amaierarako edo datorren urtarrilerako botata egongo dira eraikinak. Etxeen oinarritzako proiektua idazteko eta obra zuzentzeko kontratuaren lizitazioa ere martxan dago dagoeneko. Horiek horrela, aurreikuspenak betetzen badira, bi urte eta erdi barrurako entregatuta egongo dira etxeen giltzak.

ALOKAIRUKOAK ERE BAI

Alde Zaharrean bertan, Elizkalean hain zuzen, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailarekin hitzarmena eginda, alokairu sozialeko hamasei etxe egiteko aurreproiektua du udalak. Lau bloke erosi zituen horretarako, eta bi dagoeneko botata daude. Beste biak ere bota egingo dira, eraikin berriak egiteko.

Alde Zaharretik gertu, Santutxon, babestutako beste 28 etxe sustatuko ditu udalak. Etxe berriak eraikitzearekin batera, eremu hori eta Alde Zaharra lotzeko eta irisgarritasuna hobetzeko esku-hartzea ere egingo da. Hain zuzen, eskailerak hobetzeaz gain, igogailu publikoa bat jarriko da, eta, horri esker, bi guneak irisgarriago eta erakargarriago geratuko dira.

PLAN BEREZIA, ONARTUTA

Dena den, etxe berriak bultzatzeaz gain, gaur egungo etxeen baldintzak ere ahalik eta egokienak izatea bultzatu nahi du udalak. Horretarako, iraileko ohiko udalbatzarrean plan berezi bat onartu zuten Alde Zaharra 1 izeneko hirigintza eremurako, aho batez.

Plan berezi horri esker, betiere eskatzen diren baldintzak betez gero, teilatuetan terrazak eraikitzeko, teilatupeetan etxeak egiteko, balkoiak ateratzeko nahiz etxe handiak bitan banatzeko aukera izango dute bizilagunek.

Alde Zaharrerako epe laburrean aurreikusitako neurriak

Ikusi bideoa
hemen:



ETXE BERRIAK

Erdikalea. 13 eta 15 zenbakiak bota, eta babestutako hamabi etxe egingo dira, salmentarako.

Elizkalea. Eusko Jaurlaritzarekin hitzarmena eginda, guztira alokairu sozialeko hamasei etxe egiteko aurreproiektua dago.

Santutxo. Alde Zaharretik gertu, Santutxon, babestutako 28 etxe egingo dira, eta horrekin batera, eremu hori eta Alde Zaharra lotzeko eta irisgarritasuna hobetzeko esku hartze bat egingo da.

ZERBITZUAK

Goiko kalea 2 eraikina bota eta eraikin berri bat egingo da, udaletxeari atxikita. Herritarren Arreta Zerbitzua jarriko da han.

Frontoi Txiki ondoko parte hartze prozesua martxan dago, eta herriko eragileekin eta herritarrekin erabakiko da zer erabilera eman espazioari.

AUZOTARREN BEHARREI ERANTZUTEKO NEURRIAK:

Alde Zaharra 1 izeneko hirigintza eremurako plan berezia onartu du udalak: teilatuetan terrazak eraikitzeko, teilatupeetan etxeak egiteko, balkoiak ateratzeko nahiz etxe handiak bitan banatzeko aukera ematen du.

Trasteleku komunitarioen proiektua martxan dago, etxeetako espazio faltari aurre egiteko.

Dirulaguntzak: Alde Zaharreko etxeetako fatxadak pintatzeko laguntzak daude; alokairuko laguntzak handiagoak dira Alde Zaharrean (etxeak nahiz lokalak alokatzeko).





Espazio faltari aurre egiteko, trasteleku komunitarioak

Udalaren eta bizilagunen arteko bileretan, espazio arazoak dituztela komentatu izan dute Alde Zaharreko bizilagunek, etxeak txikiak direlako, igogailurik eta ganbararik ez dutelako, portal txikiak dituztelako... Horren aurrean, proiektu berritzaile bat jarri du abian Azpeitiko Udalak: trasteleku komunitarioak.

Lehenik eta behin, uda aurretik, auzotarrekin bi bilera egin zituzten udal ordezkariak, proiektuaren nondik norakoak azaltzeko. Ondoren, izena emateko epe bat abiatu zen, eta 28 auzotarrek erakutsi zuten trasteleku bat izateko interesa (kuota baten truke).

Hurrengo pausoan, uda ostean, lokal jabeek egin zitzaizkien deialdia. Lokalak udalari eskaintzeko aukera eman zaie. Hainbat baldintza jarri dira lokalentzat: Enparan kalean, Done Jakue kalean, plazan edo Erdikalean egotea; gutxienez 80 m²-ko azalera eta 2,5 metroko garaiera edukitzea, hormigoizko egitura izatea...

Proposamenak aurkezteko epea amaituta dago; orain, jasotako eskaintzak aztertzen ari da udala. Aukeratutakoak alokatu egingo ditu, eta obrak egingo ditu, trasteleku gisa egokitzeko.

Ekarpenak egiteko aukera



Datorren urteko aurrekontuak prestatzen hasita dago Azpeitiko Udala, eta herritarren ekarpenak jaso nahi ditu; hau da, herritarrek zer premia, lehenetasun, ideia eta abar dituzten jakin nahi du.

Horretarako, ohi bezala, bilerak antolatu ditu erdigunetik kanpoko auzoetako herritarrekin. Alabaina, horiekin ez ezik, Alde Zaharreko bizilagunekin ere elkartuko dira udal gobernuko ordezkariak, aurrez aurre azaltzeko auzorako aurreikusitako proiektuak.

Garrantzi handikoak izaten dira aurrekontuen bueltan urtero egin ohi diren bilerak horiek. Batzar horietatik atera dira gerora forma hartu duten hainbat proiektu: parkeak, auzo lokalak, errepideetako hobekuntzak...

BESTE BI BIDE ERE BAI

Dena den, bileretan parte hartu ez arren, herritar guztiek izango dute ekarpenak egiteko aukera. Horretarako, postontziak jarriko dira herriko hainbat puntutan: udaletxean, igerilekuan, liburutegian, Urrestillan, Jose Artetxe kalean eta Urbitarte auzoan. Azaroaren 20ra arte egongo dira.

Horrez gain, udalaren webgunearen bidez ere egin ahal izango dira proposamenak: www.azpeitia.eus/gardentasuna/iradokizunak-gardentasuna helbidera idatzi behar da. Bide hori urte osoan egoten da zabalik.

AUZO BILERAK:

Azaroak 6

Oñatz (Elizako lokalean)

Azaroak 6

Lasao (Auzo lokalean)

Azaroak 6

Alde Zaharra (Basazabal jauregian)

Azaroak 7

Loiola (Loiolatxo elkartean)

Azaroak 11

Aratz-Erreka (auzoko tabernan)

Azaroak 12

Urrestilla (auzo lokalean)

Azaroak 12

Elosiaga (Añotan)

Azaroak 13

Matxinbenta (taberna ondoko lokalean)

Azaroak 11

Nuarbe (auzo lokalean)

Azaroak 14

Landeta (kiroldegian).



Topaleku berri bat auzoan

Iazko azaroan, haizete batek bota egin zuen Frontoi Txikiaren ondoan zegoen Gernikako arbola. Udalak beste kimu bat landatu du, baina ez hor bertan, Zelai Luzen baizik, haritzak eguzkia behar duenez, leku egokiagoa baita hura. Ondorioz, zabalgunek bat geratu da Frontoi Txikiaren ondoko eremu horretan. Aurrerantzean, Alde Zaharreko bizilagunentzako topaleku bihurtu nahi da gunea. Horretarako, parte hartze prozesu berritzaile bat jarri du martxan udalak, Hiritik At eta OinHerriren laguntzarekin.



Herri Hezitzaileen sareko kidea da Azpeitia, eta hirigintza eredu "hezitzaileago" batetik eraldatu nahi du eremua. "Eragileen arteko lankidetzan oinarrituko gara espazio honen eraldaketa prozesuan, eta, horretarako, udazken osoa iraungo duen esperientzia pilotu bat jarriko dugu martxan", esan zuen Ander Larrañaga zinegotziak egitasmoaren aurkezpenean.

Bi berezitasun nagusi izango ditu prozesuak. Alde batetik, udaleko sail ezberdinen arteko lankidetzaz izango duela oinarri; bestetik, etorkizuneko beste proiektu batzuetan erabili ahal izango den parte-hartze metodologia berri bat sustatzeko ahalegina egingo dela.

Bi berezitasun nagusi izango ditu prozesuak: udaleko sail ezberdinen arteko lankidetzaz izango du oinarri; eta, etorkizuneko beste proiektu batzuetan erabili ahal izateko parte-hartze metodologia berri bat sustatuko du.

HIRU FASEKO PROZESUA

Hiru fasetan banatuko da parte-hartze prozesua. Lehenik eta behin, lehentasunezko herritar taldeen beharrak jaso dira. Haurrak, nerabeak, emakume atzerritarrak, zaintzaileak, aniztasun funtzionala dutenak eta Alde Zaharreko bizilagunak jo dira lehentasunezko taldetzat.

Horrez gain, jada espazio hori erabiltzen duten eragileekin elkarrizketak egin dira. Honako hauek hartu dute parte: Ilunpe pilota elkarteak, Zezen Beltzek, Elkar Ekinek, Bertanek, Jauzikak, Baigerak, Atzegik, Gautenak, Marea Urdinak eta Osamenek.

Herritarrek nahiz eragileek hasieratik hartu dute parte prozesuan; hau da, ezertan hasi aurretik galdetu zaie zer behar dituzten, eta hori da parte-hartze prozesu honen beste berezitasun bat.

AURKEZPENA, ABENDUAN

Lehen faseko ekarpenak aztertuta, proposamen espazial bat osatuko du lan taldeak, eta berriro elkartuko dira lehen faseko partaideekin, proposamen horren gaineko ekarpenak jasotzeko. Amaitzeko, abenduaren 18an, parte-hartze prozesuan parte hartu duten herritar talde zein eragile guztiekin batera saio bat egingo da, eraldaketa espaziala aurkezteko eta prozesua baloratzeko.

Espazioaren eraldaketa fisikoa bera datorren urtean gauzatuko da.

Duela gutxi amaitutakoak

1. Adinekoentzako etxe tutelatuak

Aurten amaitu dituzte. Hamabi etxe dira,
eta hamasei lagun bizi dira.

2. Buztintzuriko Errebaleko etxe tasatuak

Lau etxe tasatu sustatu ditu udalak kale
horretan. Giltzak entregatuta daude.



3. Musika eskola

Ikasturtea Soreasuko eraikinean hasi du Juan Antxieta musika eskola. Musika eskola ez ezik, Energia Bulegoa, udal euskaltegia eta Atzegiren egoitza ere Alde Zaharrean jarri dira, eta horrek kaleko giroa sustatzea ekarri du.



4. Lokal hutsak, binilatuta

Europatik jasotako dirulaguntza baten bidez, binilatu egin dira Alde Zaharreko lokal hutsak.



5. Berdeguneak

Liburutegi atzean, itzalpean egoteko aukera ematen duen berdegunea egin da.





Energia Bulegoa

943 11 98 06
energia@azpeitia.eus

Ordutegia:

Astelehen, astearte, asteazken
eta ostiraletan, 10:00etatik
14:30era. Ostegunetan,
17:00etatik 19:30era.

www.azpeitia.eus